

## BURUNTZALDEKO EUSKARAREN GINKANA, 1. EDIZIOA



**Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbileko 12-16 urteko gazteentzako lehiaketa, euskaraz eta euskararekin dibertitzeko. Izen-ematea urriaren 3tik 19ra.**

Buruntzaldeko Euskararen Ginkanaren 1. edizioa martxan jarri da. **Andoainen, Gazte Lokala izango da lehiaketa bideratuko duena.**

Kutxa Ekogunearen Euskararen Ginkana, **euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa** da. Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte talde lehiakideek. Eta Buruntzaldeko Ginkanean ere gauza bera gertatuko da.

Oraingoan, **BURUNTZALDEKO EUSKARAREN GINKANAREN 1. edizio honetan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbileko 12-16 urteko gazteentzako lehiaketa** izango dugu. Euskaraz eta euskararen bueltan gozatzeko taldekako eta herrien arteko lehiaketa.

### **Antolatzaileak**

Ekimen hau **hainbat erakunderen elkarlanaren** fruitua izango da:

Kutxa Ekogunea, Buruntzaldeko Udaletako Euskara Batzordeak, alegia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbileko udalak (Gaztelekuak eta Euskara Zerbitzuak) eta Euskaltzaleen Topagunea. Andoainen, Udalarekin batera, Gazte Lokalak antolatzen du, eta herriko ikastetxe guztiek sustatzen eta babesten dute.

### **Lehiaketako Probak eta Finala**

Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte talde lehiakideek. Buruntzaldeko Euskararen Ginkana I. edizio honetan mundu mailako begiradatik, eskualdeko begirada eta praktiketara egingo da salto.

Buruntzaldeko Euskararen Ginkana lehiaketak bi fase izango ditu:

## 1. Fasea: INTERNET BIDEZKO FROGAK.

Izena ematen duten taldeek beraien aurkezpen bideoa egingo dute eta Webgunean astero taldeek burutu beharreko 4 proba egin beharko dituzte, proba bakoitza burutzeko astebeteko epea izango dutelarik. Proba hauetan guztietan puntu gehien lortzen dituzten lau taldeek jokatuko dute 2. fasea.

## 2. Fasea: FINALA.

**Abenduaren 1ean jokatu da Orona-Ideon**, aurreko fasean puntu gehien eskuratu dituzten lau taldeen artean. Bertan erabakiko da nor izango den Buruntzaldeko Euskararen Ginkanaren 1. edizioaren talde irabazlea!

### Sariak

Finalera iristen diren taldeen artean **guztira 1.500 €** banatuko dira saritan.

- Talde irabazleak: 1.000 € ko saria jasoko du.
- Bigarren geratzen den taldeak: 500 € ko saria jasoko du.

### Parte hartzea eta izen-ematea

Ginkana taldeka jokatu da, **4 laguneko taldeak osatu** behar dituzte Buruntzaldeko 12-16 urteko gazteek parte hartzeko.

**Andoainen izenematea Gazte Lokalean egingo da. Izena on-line** eman behar dute talde parte hartzaileek **euskararenginkana webgunean**. Ondorengo orrian daude argibideak, oinarriak eta izena emateko esteka

<http://www.euskararenginkana.eus/eu/ginkanak/buruntzaldeko-euskararen-ginkana-1edizioa/gi-38/>. Gainerako xehetasun guztiak Gazte Lokalean emango dira.

**4 laguneko taldeak osatzeko edo argibideak jasotzeko Andoaingo Gazte Lokalera** jo dezakete gazteek.

**Izen-ematea egiteko epea dagoeneko irekita dago, eta irekita egongo da urriaren 19ra arte. Andoainen bizi diren edo Andoaingo ikastetxeren batean ikasle diren 12-16 urte bitarteko gazteen artean Interesa dutenek Gazte Lokalean eskuratu dezake informazio guztia.**

**Andoain, 2010-10-10**